

2020ko TXOSTENA MUGARIK GABE





Garapenerako Lankidetzza GKEa den Mugarik Gabetik herrien arteko globala eta interdependiente den garapenean sinisten dugu. Gure lana, emakume, gizon eta herrialde desberdinen artekoa zein datozen belaunaldientzat iraunkorra izango den giza garapen integrala lortu nahian, tokia-tokiko hasten dugu mugetik haratago zabalduz.

ARABA

"Itziar" Elkarteen Etxea - Zalburu Plaza z/g
01003 Vitoria-Gasteiz
945 277 385 – araba@mugarikgabe.org

BIZKAIA

Vicente Garamendi auzunea 5, behea
48006 Bilbo
94 415 43 07 – bilbao@mugarikgabe.org

GIPUZKOA

Katalina Elizegi 46, behea, 4.atea
20009 Donostia
943 445 977 – gipuzkoa@mugarikgabe.org

www.mugarikgabe.org

 Mugarik Gabe

 @mugarikgabe



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Internazionalela (CC BY-NC-ND 4.0) Dokumentu hau Creative Commons lizentziapean dago. Edukia libreki zabaltzea, kopiazea eta birbanatzea baimentzen da edozein bitarteko edo formatutan, beti ere, egiletasuna aitortzen bada. Ezin da erabili xede komertzialarekin, nahastu edo eraldatu egiten bada edo materiala oinarri hartuta sortu egiten bada, ezin da eraldatutako materialik hedatu, ezin da lizentziak baimentzen duena legalki burutzea mugatzen duen neurri teknologikorik edo legeko akaberarik erabili.

Lizentzia osatua: http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es_

2020ko TXOSTENA MUGARIK GABE



EDITORIALA

2020. urtearen balantzea egitean, saihestezina da as-tindu gaituen pandemiak hitz egiten hastea.

Izan ere, guztiok moldatu behar izan dugu gure bizimodu COVID-19ak eragindako egoerara; Mugarik Gabe-n ere egokitu, aldatu eta berrasmatu behar izan genuen gure lan egiteko eta erlazionatzeko modua, eta baita planifikatutako ia jarduera guztiak ere.

Hala eta guztiz ere, ez ginen gelditu. Beharrezkoa iruditzen zitzaiguna salatzen eta aldarrikatzen jarraitu genuen, aktiboago egon ginen sareetan eta prentsan, eta beste antolakunde batzuekin lan egin genuen pandemia eta haren kudeaketa, hemen zein Latinoamerikan, eragiten ari zirenen beste aldea erakusteko.

Era berean, ia bat-batean, mundu birtualean moldatzen ikasi behar izan genuen. Lehen aurrez aurre egiten genituen batzarrak, topaketak, jardunaldiak, proiektzioak, mintegiak, tailerrak, bidaia... egun batetik bestera *zoom*, *meeting*, *streaming* eta *webinar* bihurtu ziren, baita egunerokoan erabiltzera ohitu behar izan ginen beste hainbat hitz ere, guretzat arraro samarrak zirenak.

Dena aldatu zen 2020ko martxo hartan bertan hasi ginen salatzen, oraindik ere bagauden egoera honetan, areagotu egiten direla emakumeok bizi ditugun desparekotasun egoerak. Etxeko langile egoiliar gisa lan egiten duten emakumeen bizi-baldintzak okertzeaz ari gara, eta erasotzaileekin bizi diren eta konfinamenduan eguneko 24 orduak haiekin pasatu behar zituzten emakumeen egoeraz baita ere.

Apirilean, zera gogoratzen genuen, biztanleria osoa zaurgarritzat hartzeak ispilu baten aurrean jartzen gintuela: zaintzaren behar soziala konpontzetik urrun jarraitzen dugula, alegia. Pandemiak are gehiago nabarmendu zituen —eta hala izaten jarraitzen du— desparekotasun horiek: estaldura publiko mugatua, lan-sektore prekario eta prekarizatua, zaintzak bere gain hartzen zituzten familien gainkarga eta genero-despa-

rekotasuna, lan-ordainduaren arloan zein familien barruko banaketan eragiten duena.

Maiatza iritsi zenerako, balkoietako txalo-zaparrada eta elkarrizketa dezente bizi izan genituen, eta, horren ondorioz, eta analisi ekonomiko burutsurik egiteko beharrik gabe, berretsi egin genuen enpresen deslokalizazioa eta desindustrializazioa beharbada ez zirela neoliberalismoak saldu zizkigun ideia zoragarri horiek. Ondorioztatzen genuen munduko beste aldetik produktuak ekartzeak, agian, ez zuela logikarik, eta ez zela egokiena planetarentzat, kutsadura-maila eta baliabide natural arrunten espolioa handitzen zituelako, tokiko ekoizpen osasuntsuaren alde egin beharrean. Eta, orain, ziur gaude, horrez gain, planetaren antolaketa ekonomiko horrek eraman gaituela birusetik babesteko maskara soilak ezin egitera, edo norbera babesteko aski ekipamendu ez edukitzera, ezta osasun-langileen-tzat ere...

Halaber, Latinoamerikako kideek gogorarazten ziguten populazioaren sektore batzuek zigor bikoitza jasotzen dutela. Esaterako, indigenen eta nekazarien lurraldeetan, txikia da birus berrien aurkako immunologia-gaitasuna, eta gobernuen utzikeria handiagoa da bizirau-pen-ekonomietan, non telelanak ez duen zentzurik, eta debeku eta murrizketen ondorioz, egin ezin diren tokiko merkatuetan uzta saltzearen mende dagoen bizitza.

Laburpen gisa, hilabete horietan Elkartasuna Eraldatuz plataformako kideekin batera, zera gogoratzen genuen: halako uneetan argi eta garbi ikusten dela zer den elkartasuna. Lokaztu gabe “laguntzeko” asmoa duen elkartasun ahularen aurrean, elkartasun sendoa berpiztu beharra zegoen, zeinak ulertzen duen guztiok gairela elkarren oso mendekoak, arazo globalei irtenbide lokalak eman behar zaizkiela, eta “beste horiek” ez direla existitzen, baizik eta hezur-haragizko pertsonen arteko konpromiso eta horizonte bateratuak, komunitateekin eta herrieekin, horiek ere “gu” baitira.

Mila esker guztioi, hor egoten jarraitzeagatik.

TESTIGANTZAK. NOLA BIZI IZAN DUTE BAZKIDEEK 2020 PANDEMIKOA?



ELIA PALACIOS. AXAYACALT (Nikaragua)

Niretzat, iazko COVID-19ren pandemiak erabateko aldaketa ekarri zuen. Hainbeste pertsona eramaten ari zen gaixotasun ezezagun batenganako beldurra, berekin ekarri zuen gu geu eta onuradunak babesteko neurriak hartu behar izatea, jarduera batzuk aldatuta eta beste batzuetan parte-hartzea murriztuta; horrela, OPSeK (Osasunaren Erakunde Panamerikarra) gomendatutako neurriak aplikatu ziren, hala jarraitu ahal izateko indarkeria matxistatik bizirik ateratako emakumeei arreta eta laguntza ematen, genero tailerrak eta emakumeen giza eskubideei buruzkoak eskaintzen, ahalduz ekonomikorako ekintzak garatzen eta emakumeei orientazioa ematen indarkeriarik gabe bizitzeko eskubideari eusteko. Denbora tarte hau oso mingarria izan da hainbeste pertsona galdu izanagatik, eta ikas-teko denbora ere izan da, egunerokoa eta inguruko pertsonak are gehiago balioestera eraman gaituelako.



FLAVIO CAAL. ASECSA (Guatemala)

Pandemiak, lehenik eta behin, ekintzak geldiaraztea eragin zuen; ondoren, ekintza horiek birplanteatzea, eta, horretarako, osasun-neurriak hartzea. Horrek lanean jarraitzeko erronkak sortu zituen, protokoloak ezarriz langileak gaixotzeko arriskuan ez jartzeko. Era berean, antolakunde aliatuekin egindako lan artikulatua indartu zen, eta horri esker, baliabideak batu ahal izan ziren. Hala, landa-eremuetako familiei elikagaien bidez lagundu zitzaizen, eta maiei eta landa-komunitateei zuzendutako kanpaina grafiko bat abiatu zen, COVID-19aren prebentzioa helburu. Osasun komunitarioaren lanketari dagokionez, informazioaren eta osasun-ekipamenduaren bidez, laguntza eman zaie osasun-sustatzaileei eta beren komunitateetan osasun-zerbitzuak ematen dituzten emaginei, osasun publikoko estatu-sistematik kanpo.

Herrialde mailan, ASECSAk aktiboki parte hartu eta babestu ditu eskakizun sozialak, gobernu-programek pobrezia egoeran dauden biztanleei osasun-zerbitzuak eta gizarte-laguntza bermatu diezazkieten.



ANGÉLICA NARANJO. Mujeres que crean (Kolonbia)

COVID-19 bidezko kutsatzeetatik babesteko isolamenduaren paradoxaren aurrean, eta salaketa-mekanismoetara jotzeko eta indarkerien arreta eta prebentziorako zerbitzuak eskuratzeko ekonomia- eta genero-arrakalak areagotzeko arriskua ikusita, irudimentsuak izatea erabaki genuen; hala, ekintza pedagogiko afirmatiboak areagotu genituen, laguntza-sareak, afektua, prozesuetan murgildutako emakumeekiko hurbiltasuna eta itxaropena sustatzeko.

Aldi berean, sistema publikoari eskatu genion eskubideak aitortzen dituzten ibilbideak eguneratzeko baliabideak eta estrategiak mobilizatzeko, emakumeen Giza Eskubideen Txostenetik egoerak etengabe monitorizatuz, eta pedagogiaren bidez, _"PON LIMITES, POR UNA VIDA LIBRE DE VIOLENCIAS CONTRA LAS MUJERES, CUÍDATE ACOMPAÑA Y DENUNCIA"_ kanpaina baliatuta, sare sozialetan, telebistan, irratan eta egunkarian zabaldu zena.



FRANKLIN GUTIÉRREZ. CEFREC (Bolivia)

Pandemia martxoan iritsi zen Boliviara, baina, egoera larriagotzeko, hila-bete batzuk lehenago (2019ko azaroa) estatu kolpe bat gertatu zen, ordena demokratikoa hautsi, eta izaera faxista zuen *de facto* gobernu bat inposatu zuena. Testuinguru horretan, CEFRECekin elkarlanean aritzen diren gizarte-mugimenduek etengabeko jazarpena jasan zuten, COVID-19ari aurre egin behar izateaz gain. Hala eta guztiz ere, lanean jarraitu zen komunikazio indigenatik eta CAIBekin elkarlanean, bai eskubideen urraketa salatuz, bai indigenen egoera ikusaraziz gaixotasun lazgarri honi dagokionez. Pozez esan dezakegu herrialde gisa, eta komunikazio indigenaren ekarpenarekin, demokraziara itzuli ahal izan garela, baina oraindik ere pandemiaren aurrean bide luzea dugu borrokatzeko.



AMÉRICA ROMUALDO. Las Dignas (El Salvador)

El Salvadorren, COVID-19aren pandemiaren testuinguruan, emakume antolatu gisa posizionatu gara, eta erabakiak hartzeko orduan gu kontuan hartzeko eskatu dugu. Gobernuak ezarritako politika publikoak lurraldea kontrolatzeko plan bat ezartzeko beharraren ondorio izan ziren. Horregatik, giza eskubideen urraketa asko egon ziren.

El Salvadorren, emakumeek, telelan bidez egin daitezkeen lan formaleko aukera gutxi dituzte; hortaz, derrigorrezko berrogeialdiak zuzenean eragiten zien diru-sarrerei, eta gobernuak ezarri zituen arintze-politikak minimoak izan ziren, arazoarekin alderatuta.

Bestalde, 2020an, aztertu egin ditugu emakumeek jasandako kalte espezifikoak; izan ere, sakondu egin ziren emakumeek genero-indarkeriaren arretan erakundearen erantzuna lortzeko ohikoan dituzten zailtasunak, eta, gainera, areagotu egin ziren zaintza-lanen gainkarga eta eskola-sistema erabat gelditzearen ondoriozko kostuak.

Egoera horretan hainbat modutan komunikatu gara, baliabide birtualak ez baitaude eskuragarri emakume guztientzat, eta segurtasun-neurri guztiak hartuta elkartzeko moduak bilatu ditugu, eta elkartzeko une horiek oso baliotsuak izan dira gure osasun emozionalerako.



MAYER SANCHEZ. CRIC (Kolonbia)

Lurralde Kabildo Indigenan kexa eta kasu asko jaso ziren familia barruko eta emakumeen aurkako indarkeriarekin lotuak; esaterako, nahi gabeko haurdunaldiak, emakumeek ezin izan baitzuten familia-plangintza zerbitzura jo. Are gehiago, osasun-zentroetako arreta faltak eragotzi egiten zuen jaiotzen aurreko kontrola, eta, ondorioz, haurrak gabeziekin jaio dira.

Emakumeen egoera ekonomikoa oso konplexua izan da, eta oraindik ere zaila izaten jarraitzen du; izan ere, asko, eguneroko lanari esker bizi dira, etxeko lanetan edo nekazaritzan, baina ez desplazatzeko agindua zutenek, ezin ziren atera. Hala ere, batzuek, baliabideak sortzeko moduak berrasmatu genituen. Era berean, gure elikagai propioak baloratu genuen berriro, eta elikagaiak prestatzen ikasi genuen, baita sendabelarrak erabiltzen ere, oraingo gaixotasunak tratatzeko, hala nola COVID-19aren prebentzioa. Hori guztia, lurraldea eta komunitatea babestearen zentzuan.

Laburbilduz, 2020ak areagotu egin ditu eskubideen inguruko ezagutza falta eta emakumeen aurkako indarkeriak. Fisikoki eta lan-arloan, nekea eta giza ahultasuna ekarri ditu, baita ziurgabetasuna eta gobernuaren autoritarismoa ere.

BOLIVIAK ALDAKETA PROZESUA BERRESKURATU DU

Estatu kolpearen (2019ko azaroaren 10a) eta 2020ko urriaren 18ko hauteskundeen artean, aldaketa prozesua berreskuratzea zen Bolivian gehien adierazten zen ideia.

Tentsioa oso nabarmena zen; pertsona, erakunde eta instituzioek konbentzimendu intimoa baitzuten, isila baina nabaria, konbultsio sozial eta politikoen eztanda bortitzarekin amai zitekeela hauteskunde eguna. Egia da adierazpen publikoak demokraziaren jaiaz eta halako egunetako beste topiko batzuez mintzatzen zirela, baina mundu guztiak zekien gertaerek eta egun horretako emaitzei buruzko irakurketek borroka sozial eutsiezina ekar zezaketela, gobernuaren errepresio geldiezin batek lagunduta, ala hurak berak eraginda.

Inkesta guztiek iragartzen zuten Sozialismorako Mugimenduaren (MAS) garaipena. Eta horregatik, iruditeria kolektiboak ulertzen zuen gobernu kolpistak iruzur egin zezakeela emaitza prostituitzeko. Hortik aurrera, nahiz eta behin eta berriz errepikatu lasaitasunerako deiak, emaitzak errespetatzen ez zituztenen probokazioetan ez erortzeko, inork ez zuen ziurtatzen eguna ondo amaituko zenik. Eta inork ez zuen apusturik egin biharamunean herrialdea lasaitasun giroan altxatuko zelaren alde. Jendartea banatuta zegoen: batetik, iruzurrari helduta, estatu-kolpearekin urtebete lehenago hasitako aldiari jarraipena ematearen eta neoliberalismo autoritarioena berrezartzearen aldekoak, eta, bes-

tetik, hauteskontzietan demokratikoki adierazitako borondatearekiko errespetua defendatzearen aldekoak, etendako aldaketa-prozesua berriro abian jar zedin.

Hauteskundeen aurreko egunetan, tokiko analistek, errealtate sozialetik urrun samar, nazioarteko erakunde, enbaxada eta behaketa-misioen aurrean zera ziurtatzen zuten: Boliviak ziklo historiko bat itxi zuela, eta irmo murgilduta zegoela beste etapa batean, azken hamahiru urteetako *aldaketa prozesu* deitutakoa gainditzen zuena.

Itxuraz sakonak ziren disertazioak ziren, hainbat kontzepturen ingurukoak, hala nola instituzionaltasunaren defentsa, gobernagarritasunaren garapena edo demokrazia liberal ordezkatzailaren onura ukaezinak. Alabaina, aipatu ere ez zuten egiten azken urtean herrialdeak jasandako estatu kolpea, eliteak protagonista zituena.

Estatu kolpeak errepresio benetan gogorreko etapa abiarazi zuen, Bolivia diktadura militarren garaira itzularaziz, baita politika neoliberalak modu ortodoxoan aplikatzen ziren garaietara ere, zeinetan eguneroko kontua ziren sarraskiak, atxilotetak eta protesta sozialaren kriminalizazioa. Boliviak, hazkunde ekonomikoaren batez besteko indizea %4 inguruan mantendu zuen ordurarte, baina *de facto* gobernu-urtean digitu negatiboetan hondoratu zen, eta, berriz ere, maileguak



Boliviako hauteskundetan Indigenen Hauteskunde Behaketa Misioa.



Behaketa Misioko hedabideen aurreko agerraldia Boliviako hauteskundetan.

eskatu zizkion Nazioarteko Diru Funtzari. Hala, herri- interesen batere lagun ez diren —baina elite ekonomikoengandik oso hurbili daduen— instantzia horiekiko zorra handitu zuen Boliviak.

Herrialdea abereen etxaldea edo soja-lursaila balitz bezala gobernatzen zutenen ezgaitasuna, bistan denez, errealtate berriaren arrazoi erabakigarrietako bat zen, herrialdeak duela 15 urte bizi ez zuen errealtatea, alegia. Urte hartan zera ikusi zen: pobrezia eta muturreko pobrezia murriztea lortu zuten hogeit hamar puntu baino gehiago lehengoratzen ari zirela, eta pobrezia berriz hazten ari zela. Hamabi hilabete horietan, langabezia duela 20 urteko mailara itzuli zen, biztanle gehienek erosteko ahalmena galdu zuten, ikusten zuten bitartean inflazioa berriz ere handitzen zela, eta pandemia hedatzen ari zen, hura geldiarazteko *de facto* gobernuaren neurririk gabe. Azken finean, gehiengo handien oinarritzko bizi-baldintzen galerak eta errepresioak markatutako urtea izan da. Aldi berean, betiko gutxiengoa, berriz ere nagusi zena nazio anitzeko estatuan, etapa neoliberalaren garai ilunetara itzultzen zen; enpresa publiko estrategikoak pribatizatzeko eta baliabide naturalak enpresa transnazionaleri emateko prozesuak berrabiarazi zituen.

Hala eta guztiz ere, ezustekoa urriaren 18an iritsi zen. Boliviako biztanleriaren gehiengo absolutuak adierazitako borondatea hain izan zen erabatekoa, ezen shock egoeran utzi baitzituen indar oligarkikoak, atzerriko zenbait kantzilergo eta nazioarteko zenbait erakunde. Hauteskunde gauak emandako emaitzek hautsi egin zuten pilatutako tentsioa, eta aukerarik gabe utzi zituen iruzur egiteko asmoa zutenak; izan ere, herrialdeko lehenengo indar politiko eta sozialaren eta gainontzekoen arteko aldea hain zen handia, non norabide horretako edozein mugimenduk ez zukeen sinesgarritasunik izango.

Orain, Bolivia bigarren itzulian dago, baina ez hauteskundeei dagokienez, baizik eta aldaketa-prozesuak behar duen berreskuratzeari dagokionez, zeinak sakondu egingo duen gizarte-inklusioaren ardatz nagusietan, aberastasunaren birbanaketan eta estatuari, herri-eskaerei eta herrialdearen errealtate plurinazionalari arreta jartzen dien eredu ekonomiko eta politiko komunitarioan, bere bilakaera soilik merkatuen aginduetan oinarritu ordez.

Azken urte honek balio izan du, halaber, eredu neoliberalak agortu dela egiaztatzeko, baita eredu autoritarioagoa bihurtzen dela egiaztatzeko ere, agortzen den neurri berean, hain zuzen. Postulatuetan ainguratuta jarraitzen du, hala nola guztiaren pribatizazioan, are bizitzaren beraren pribatizazioan, merkatuen askatasun absolutuan, estatuaren gaitasunak murriztean, kontuan hartu gabe azken hamarkadetan izandako nagusitasuna jada ez dela hain handia. Neoliberalismoak, mundu osoan zehar, azken urteetan izan dituen porrotak, bai arlo ekonomikoan, bai politikoan zein sozialean, ukaezinak dira; hor dago 2008tik aurrerako krisialdia eta gaur egungoa, pandemiak eragindakoa. Eta gaur egungo ahuleziaren frogarik nabarierena, Bolivian azken urte honetan erakutsi duena, honakoa da: eremu ideologikoa galtzen duen neurrian, hartzen duen izaera autoritarioa. Demokrazia ordezkatzailerak —duela hamarkada batzuk neoliberalismoak bereganatutako bandera—, oztopo gisa ikusten du gaur egun, haren interesentzako baliorik ez duen neurrian.

Boliviak, berriz ere, neoliberalismoaren alderik iluneri egin dio aurre. Progresismoarako arrakala posible bat ireki du berriro, bertan zein kontinenteko gainerako herrialdeetan jendarte demokratikoak eta benetan bizidetzakoak eraiki daitezkeela frogatzeko.

MUGARIK GABE



Boliviako hauteskondeak, 2020ko urriaren 18a.

FEMINISMO SAILA

HEZKUNTZA

Mugarik Gabe antolakundearen beste arloetan bezala, COVID-19 pandemiak markatu du 2020a, eta agerian utzi ditu mugimendu feministak eta gurea bezalako beste antolakunde batzuek aspaldi salatzen genituen egoerak. Besteak beste, indarkeria matxistak ikusezin bihurtzea, edo, batez ere, emakumeek eusten dituzten zaintza lanak ezinbestekoak direla.

Testuinguru hori kontuan hartuta, feminismoen arlotik, 2020an indarkeria matxisten aurkako kanpainarekin jarraitu dugu, biktimen eta biziraun duten emakumeen memoria, egia, justizia eta erreparazioa aldarrikatuz; antolakuntza feministarako aldaketaren lanari eutsi diogu, baita hainbat ikastetxe eta gizarte-antolakunderi emandako prestakuntza eta aholkularitzei ere.

Halaber, Mugarik Gabe-ren genero-estrategia berrikusteko garaia ere izan da. Horretarako, estrategia aztertzeko eta haren inguruan hausnartzeko denbora eskaini da, Plan Estrategiko berrirako ikaskuntzak ere ateratzeko asmoz.

MEMORIA ERAIKIZ

Memoria Eraikiz izeneko prozesuaren baitan proposamen artistikoa egin da: munduko hainbat lekutan indarkeria matxista pairatu eta bizirik atera diren emakumeen kontakizunak jasotzen ditu, haien azalean jarri. Kanpezu, Agurain, Gasteiz, Bilbo eta Getxoko espazio itxietara egokitu dugu proposamena.

Bestalde, indarkeria matxistaren biktimen eta biziraun duten emakumeen memoriari buruzko jardunaldiak egin genituen urriaren 22an eta 23an, aurrez aurre eta online. Jakinda memoria kolektiboa analisi feministatik berregitea gizartearen eraldatzen laguntzen duen

prozesu bat dela, gertaera biolentoak ez errepikatze-ko oinarriak jarri, jardunaldietan memoria, egia, justizia eta erreparazioaren kontzeptuak landu genituen; memoriari buruzko hainbat ekimen ezagutu genituen, baita bizirik ateratako emakumeen kolektiboek egiten duten lana ere.

BAKEA ERAIKITZEN DUTEN EMAKUMEAK

"Bakea Eraikitzen duten emakumeak" Euskal Herriko, Guatemalako eta Kolonbiako emakumeen arteko elkar-riketarako gune bat da, bake-prozesuetan duten parte-hartze soziopolitikoko esperientzien ingurukoa. Ideia honakoa da: ikuspegi feministatik eta genero ekitatetik, emakumeek bake-prozesuetan duten eginkizuna baliostea eta aldarrikatzea, giza eskubideak, emakumeen eskubideak eta herrien eskubideak errespetatuz.

2020an zehar, prozesu hori zer izan den itzuli genion euskal jendarteari eta erakundeei. Horretarako, doku-



mentu estrategiko bat egin genuen, Kurasaalean aurkeztu genuena. Hitzaldi publiko bat antolatu genuen nazioarteko hizlariekin, eta bideo bat egin genuen ondorio nagusiekin eta bidean jasotako ikaskuntza estrategikoekin.

IKUSEZINEAN BIDAIAITZEN

2020an, antolakuntza feministarako aldaketa prozesuei buruzko hainbat prestakuntza- eta gogoeta-guneetan parte hartu dugu. Ikusezinean Bidaiatzen prozesuarekin sortutako ikaskuntzak eta materialak enbaxadore onak izan dira gure apustua zabaltzeko eta topaketa berriak sustatzeko.

Greenpeace eta Novact-en aktibismo-eskolan parte hartzeak, Amnesty International eta UNRWArekin go-goeta egiteko eta trukatzeko espazioek edo CAS (Collectivos de Acción Solidaria) laguntzeak erakusten dute antolakunde askok argi dugula ezinbesteko elementua dela antolakuntza aldatzea, antolakuntza-koherentziarako ez ezik, baita agenda feminista eraldatzaileagoak bultzatzeko ere.



ikusezinean bidaiatzen.

FORMAZIOAK ETA AHOLKULARITZAK

Aurten, hezkidetzari buruzko irakasleentzako prestakuntza-prozesuak garatzen jarraitu dugu, bereziki Lanbide Heziketako ikastetxeetan. Ikastetxeei akonpainamendua egin diegu, eta Ondarroako BHI n berdintasunaren egoerari buruzko diagnostiko-prozesu bat abiarazi dugu.

Halaber, gizarte-entitateetatik komunikazio inklusiboari buruzko hainbat tailer egin dira; horien artean, Euskadiko GGKEen Koordinakundearekin batera egindako bi online edizio nabarmendu behar dira.

Taller de género y comunicación

Hacia una comunicación feminista en las ONGD

Fecha: 14 de mayo. De 10:00 a 12:30
18 de mayo. De 10:00 a 12:30

Lugar: Dirección de sitio web para unirse:

Sesión 1: 14 de Mayo

<https://labuz.eus/qmRl>

Sesión 2: 18 de Mayo

<https://labuz.eus/gZv0V>

Ponente: María Viadero, Mugatik Gabe.

Objetivo: En estas sesiones virtuales conoceremos propuestas para la construcción de alternativas en el diseño y uso de los contenidos, lenguaje e imágenes de nuestra comunicación. Serán dos sesiones con una parte expositiva y otra más práctica.

Personas destinatarias: ONGD y personas interesadas, con un especial llamamiento a quienes actúan habitualmente como portavoces de la Coordinadora de ONGD de Euskadi.

Inscripciones: Hasta el 13 de mayo enviando un correo a: genero@ongdeuskadi.org. Aforo limitado.

Organiza:

Colaboran:



"Komunikazio feministak" prestakuntza, GGKEen Koordinakundearentzat Euskadi.

KOOPERAZIOA

Kooperazio-lanaren ardatza tokiko bazkideei laguntzea da, intzidentzian, presioan eta mobilizazio politikoan, baita prestakuntza eskaintzea ere, emakumeen kontzientzia kritikoa indartzeko eta iritzia publikoa sortzera bideratutako komunikazioa eta dibulgazioa sustatzeko.

Halaber, emakumeen mugimendua, subjektu politiko gisa, eraikitzen lagundu dugu, baita emakume-taldeentzako antolakuntza prozesuak ere, sexu- eta ugalketa-eskubideen inguruko aldaketak lortzeko, abiapuntu hartuta emakumeen gorputzaren autonomia, emakumeenganako indarkeriaren aurkako borroka, lanaren banaketa sexuala eta sozializazio sexistako prozesuak, gizonen eta emakumeen arteko desparekotasunen oinarri diren neurrian.

Beste lan-ildo baten bidez, lehentasuna ematen zaio Kolonbian eta Guatemalan giza eskubideen defendatzaileei babes integral feministaren bidez laguntzeari, baita emakumeek bakearen eraikuntzan parte hartzeko prozesuei ere.

AXAYACALT (NIKARAGUA)

Pandemiaren ondorioz aurrez aurreko jarduerak egiteko zailtasunak izan arren, Axayacalteko kideek hainbat



Axayacatl Emakumeen Elkartaren Batzarra.

ekintza egin dituzte indarkeria matxisten aurkako borrokan. Emakumeentzako babes taldearen eta defendatzaile komunitarioen sarearen bidez, laguntza juridikoa eman zaie indarkeria pairatzen duten emakumeei. Axayacalte irratia eta telebista-saioetan parte hartu du, indarkeria horiek eta haur eta nerabeei egindako sexu-abusuak ikusarazteko eta salatzeke. Ildo horretan, dokumental bat ere egin dute: "La otra cara del feminicidio". Agroekologia lan-ildoari dagokionez, familia-baratzeak sustatzen jarraitu da, eta emakumei

prestakuntza teknikoa eta haziak eman zaizkie. Urte amaierako bi urakanek kalte larriak eragin dituzte uz-tetan, eta, beraz, oraingo erronka lurra prestatzea da, nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpena berriz mar-txan jartzeko.

CORPORACIÓN PARA LA VIDA MUJERES QUE CREAN (KOLONBIA)

Aurten 30 urte bete ditu Mujeres que Creanek, eta aza-roaren 25ean Antioquiako Ordezkarien Ganberak saria eman zien egindako lana aitortzeko. MQCekin amaitu dugu emakumeen aurkako indarkerien prebentziorako prozesua Caldas eta Barbosa udalerrietan, eta 2021ean Medellinen sustatuko da. MQCk Medellingo eta Antio-quiako emakumeen giza eskubideen urraketa-egoera-ri buruzko XVIII. txostena argitaratu du; txostenak ba-ke-akordioaren osteko indarkeriak eta giza eskubideen defendatzaileen jardun politikoaren urraketak jorratzen ditu.



Corporación para la Vida Mujeres que Crean elkartearen mobilizazioa.

ASOCIACIÓN DE MUJERES POR LA DIGNIDAD Y LA VIDA (EL SALVADOR)

Las Dignas antolakunde politiko feminista da, 1990eko Bake Akordioaren garaian sortua.

2020an, desparekotasunak ezabatzeko eta gizarte in-klusibo, ekitatibo eta jasangarri bati ekarpena egiteko lanari eutsi zaio, honako hauen bidez: antolatutako emakumeen parte-hartze politikoa beren eskubideak defendatzeko, erakunde publikoetan eragitea, herri-au-ditoretzako eta jendarte-sentsibilizazioko ariketak, eta kultura patriarkala eraldatzeko erakunde publikoetako funtzionarioen prestakuntza beren funtzioak garatzeari dagokionez, baita elikadura-burujabetza eta ingurume-naren babesa ikuspegi feministatik lantzea, hainbat ko-lektiborekin. Emakume antolatuak, gazte-sare mistoak, artistak eta hezkuntza-komunitateak protagonista dira ekitatearen kultura sustatzeko, pentsamendu politiko

feministatik abiatuta Berdintasunaren eta Ekitatearen Legearekin eta Indarkeriarik gabeko bizitza baten al-deko Lege Integralarekin bat datozen politika publikoak eskatzeko, erabakitze eskubidea sustatzeko, sexu-eta ugalketa-eskubideak bultzatzeko, eta ingurumena eta garapen jasangarria babesteko.



2020ko ekintzen poster laburpena. Las Dignas.

COLECTIVA FEMINISTA PARA EL DESARROLLO LOCAL (EL SALVADOR)

La Colectivarekin egindako lan nagusia udalerrri segu-ruak eta unibertsitate-hiriak sustatzea izan da, ema-kumeenganako indarkeriarik gabekoak. Horretarako feministen, udal-funtzionarioen eta El Salvadorreko Unibertsitateko langileen artean koordinatutako ekin-tzak gauzatu dira arreta integral espezializatuko zer-bitzuak eskaintzeko.

Lanean dihardute unibertsitatearen baitan Legezko Arretarako eta Arreta Psikologikorako Zentro bat sor-tzeko, eta udalerrri-mailan ere udal-langileak gaitzen ari dira, arreta espezializatua eskaintzeko gai izan dai-tezen.



15 urteko erronkari ospakizuna: errealtate feministak eraikitzen! La Colectiva feminista para el desarrollo Local.

Bizimodu Jasangarrien Arloko hezkuntzan, *“Tipi-Tapa Bagoaz, Bizimodu Jasangarrietarantz”* kanpainako edukia aztertzen da. Kanpainaren helburua, garatzen eta analisiak eta aldarrikapenak sozializatzen jarraitu du. Kanpaina honek dagoeneko urte batzuk daramatza martxan, eta Desazkundea eta Bizitzeko Ona Sarearen topaketetan aurrez egindako lanaren emaitza da. Kanpainak lau ardatz ditu: elikadura burujabetza, pertsonen zaintza, desazkunde energetikoa eta pertsonen zerbitzura dagoen ekonomia.

Ilido horretan, jarraipena eman genion, Tantaka TVre-
kin elkarlanean, Alternatiben Lurra saioan 4 programa
egin eta emititzeari; saio bana, kanpainaren ardatz te-
matiko bakoitzeko.



Alternatibeen Lurra grabaketa eta Alternatibak Plazara dokumentala.

Gainera, *Alternatibak plazara!* dokumentala grabatzen eta errealizatzen amaitu dugu. Gure ingurune hurbileko esperientzia interesgarriak erakusten ditu, bizitza-eredu jasangarriagoetara igarotzen laguntzen dutenak, eta aurren birtuala izan den Euskal Herriko Merkatu Sozialaren testuinguruan aurkeztu da.



Gainera, udaletako teknikariei eta politikariei zuzendutako mintegiak egin ditugu, udalerrietan bizitza jasagarrietara bideratutako praktikak partekatzeko eta sustatzeko. Espazio horiek egiteko elkarlanean aritu gara XXK. Feminismoak, Pentsamendua eta Ekintza-rekin. Online formatura egokitu dira, eta guztira 3 mintegi egin dira (bakoitza 2 saiokoak) Amurrio, Gasteiz eta Donostialdeko (Gipuzkoa) hainbat udalerritako langileekin.



Una política de cuidados como política de transición para poner todas las vidas en el centro

¡¡GRACIAS!!

Teknikariei eta politikariei politika jasagarriari buruzko Formakuntza XXXren eskutik Gasteizen.

Udalekin egindako lan-prozesu horretan laguntzeko, gida bat egin da udaletako politikarientzat eta teknika-rientzat: *“Tokiko politika publikoetatik bizimodu jasangarrietarantz”*. Gidak hainbat proposamen eta neurri jasotzen ditu, bost trantsizio-ardatzetan egituratuta: jasangarritasun ekologikoa, ekonomiaren birlokalizaioa, denon arteko erantzunkidetasuna, lanen berrantolaketak eta demokratizazioa. Gure ustez, ardatz horiek adierazten digute nondik jo behar dugun, aldaketa eraldatzaileak lortzeko.




Era berean, kanpainaren esparruan, elikadura, energia, zaintza eta ekonomia arloko alternatibak ikusarazteko beste material bat sortzen amaitu dugu. Argitalpen bat egin dugu, *“Aztertu, Aldarrikatu eta Aritu. Zergatik eta nola eman urratsak Bizitza Jasangarriak lortzeko”*, irakurketa errazeko formatu arin eta pedagogikoan. Hala, pertsona guztiei zuzenduta dago, eta, gainera, egokitu-ta dago irakurketa- edo ulermen-arazoak dituzten per-tsoneri, estimatzen baita herritarren %30 direla.



Dokumentua irakurketa errazera egokitzea “Aztertu, aldarrikatu, aritu. Zergatik eta nola eman urratsak bizitzak jasangarriak lortzeko”

FORMAKUNTZAK ETA AHOLKULARITZAK

Gainera, hainbat prestakuntza antolatu eta eskaini di-tugu, hala nola *“Caminando hacia la sostenibilidad de la vida”* tailerrak Feminismos Desazkundera-rekin elkar-lanean, bizitza jasangarriagoetarantz jotzeko proposa-menak, aldarrikapenak eta alternatibak sozializatzeko; *“Poniendo la vida en el centro”* hitzaldia, Amaia Pérez Orozcoren eskutik; ekonomia feministari buruzko tai-ler bat eman genuen; baita Desazkunde Feministari buruzko modulua ere, UNEDen eta Mugarik Gabeko Ekonomialariak-en *“Desazkundera, bizitzaren jasangar-ritasunerako erantzun gisa”* ikastaroaren esparruan.



Formakuntza Amurrión.

CALA kolektiboak bultzatutako Mudal Mundo Patas Arriba prozesuaren lantalde motorean ere parte hartu dugu; honen helburua da bizitzaren jasangarritasuna-rekin lotutako arazoei heltzea, beste hainbat antola-kunderekin batera material didaktikoa sortzeko. Proze-suan parte hartu dugu ekarpen, galdetegi, elkarrizketa eta trukeen bidez, baita *“Educar en Sostenibilidad de la Vida en Tiempos de Pandemia”* topaketan ere, praktika-tik hausnarketak sozializatzerara bideratua.

KOOPERAZIOA

Prozesu eraldatzaileak bultzatzen jarraitzen dugu, bi-zitza erdigunean jarriko duen mundu bidezkoago eta, ingurumenaren aldetik, jasangarriago baterantz aurre-ra egiten laguntzen dutenak. Ekonomia sozial, solidario eta iraunkorraren ekoizpen- eta kontsumo-ereduak za-baltzea eta praktikan jartzea bultzatzen dugu. Nekaza-ritza eta abeltzaintzako kooperatibekin eta landa-ere-muko emakumeekin lan egiten da batez ere, ekoizpen agroekologikoan, familiak eta tokiko merkatuak horni-tzen dituztenak elikagai osasungarri, sasoiko eta lurzo-ru eta klima bakoitzerako egokiak direnekin, banaketa-eta kontsumo-zirkuitu laburren bidez. Ildo horretatik, sustatzen da, halaber, emakumeek lurraren jabetza es-kuratzea eta erabakiak hartzeko orduan gehiago parte hartzea familietan, komunitatean zein kooperatibetan. Horrela, aurrera goaz elikadura-burujabetzarantz, eta emakume ekoizleen ahalduzko sozial eta ekonomikoa-ri laguntzen diogu.

XOCHILT ACALT (NIKARAGUA)

Antolakunde hau 1990. urtean sortu zen, Larreynaga eta Telica udalerrietan tokiko garapen jasangarri eta ekitatiboa lortzeko prozesu komunitarioak sustatzen.



Xochilt Acalten formakuntzaren lantaldeak..

Aurten, COVID-19ak eragina izan du jardueren garapenean, eta antolakunde komunitarioak —batez ere emakumeenak— indartzeko prozesu asko moteldu egin behar izan dira.

Horrela, antolakundeen arteko prestakuntza- eta artikulazio-prozesuak maila txikiagoan mantendu dira, eta gaitasunak eta trebetasunak sustatzen jarraitu da, herritarrek lagunduz tokiko garapen jasangarria gauzatzen, emakume gazte zein helduen autonomia ekonomikoa sustatuz.

Emakumeentzako lurra legeztatze lanarekin jarraitu da, eta ekimen agroekologikoak indartu dira, prestakuntza-prozesuen, ura eskuratzeko sarbidea hobetzearen edo laboreen dibertsifikazioaren bidez.

ASOCIACIÓN CUBANA DE PRODUCCIÓN ANIMAL (KUBA)

2020an, aliantza mantendu dugu ACPA elkartearekin, eta jarraipena eman diegu Cienfuegos eta Santiago probintzietan nekazaritza eta abeltzaintzako eredua eraldatzeko prozesuei. Bertako nekazaritzako elikagaien estrategiarekin bat etorriz, abian dauden proiektuen oinarria ekoizpen-unitateak indartzea eta ekoizpenak handitzea eta dibertsifikatzea izan da, azken batean, biztanleriaren elikadura- eta ekonomia-beharrei erantzuten baitiete.

Laguntza hau, batetik, formakutetzakoa eta teknikoa da, eta bestetik, teknologikoa, azpiegiturak berrituta, ureztatzeko sistemak, jezte sistemak eta bestelako hornidurak ezarrita. Era berean, arreta berezia jarri zaie genero-desparekotasunei, neurri espezifikoak txertatuz kooperatiben erabakiguneetan emakumeen parte-hartzeko handiagoa bermatzeko eta sortutako enpleguetarako sarbide handiagoa izan dezaten. Zentzu horretan, ACPA elkartearen genero ekitatearen aldeko antolakuntza aldaketarako prozesua laguntzeko ekintzak sustatu dira, baita herrialdeko Nekazaritza Ministerioko Genero Estrategia abiaraztea ere.



HERRI INDIGENEN SAILA

HEZKUNTZA

Mugarik Gabetik, hainbat herrialdetako antolakunde indigenekin lan egiten jarraitzeaz gain, premiazko bestelako ekintza-ildo batzuk ere artikulatu ditugu.

COORDINADORA POR LOS DERECHOS DE LOS PUEBLOS INDÍGENAS


CODPIrekin batera, herri horien artean pandemiari aurre egiteko neurrietan zentratzen den EAEko eta Espainiako lankidetzak-erakunde kanpaina bat gidatzen dugu, baina haien eskubide indibidual eta kolektiboak ahaztu gabe. Lehenengoa ezin da aitzakia izan bigarrenak baztertzeko. 45 erakunde, koordinakunde eta sare baino gehiagok bat egin zuten eskaera horiekin, eta Espainiako kongresuan legez besteko hainbat proposamen onartzea bultzatu dute, baita Eusko Legebiltzarrean agerraldia egitea ere.



Agerraldia Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean.

COORDINADORA LATINOAMERICANA DE CINE Y COMUNICACIÓN DE LOS PUEBLOS INDÍGENAS

Halaber, CLACPIren eskutik, COVID-19aren prebentzio-rako informazio- eta komunikazio-kanpaina indigena bat abian jartzen lagundu dugu Mexiko, Guatemala, Peru eta Bolivian. Helburua: komunitateengana iristea estatuek ematen ez duten informazioarekin.



EUSKAL HERRIA - AMÉRICA LATINA ELKARTASUNA

Bestalde, nazioarteko lankidetzak eta elkartasuneko euskal antolakundeekin batera, komunikazio-kanpaina zabal bat antolatu zen, Latinoamerika osoko antolakunde herritar, indigena, nekazari, feminista eta hiri-eremuetakoen egoerari buruzko informazioa jaso eta zabaltzeko, pandemiaren testuinguruan.

GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK BABESTEKO EUSKAL PROGRAMA

Aurten, Mugarik Gabetik, Aldi Baterako Babeserako Euskal Programaren esparruan, OIAko lider indigena bat hartu eta haren akonpainamendua gauzatu dugu. Konfinamendua gorabehera, zaintza- eta berreskuratzeko-agenda bete ahal izan dugu, baita eragin politikoko agenda bat eta EAEko zein Estatuko antolakundeekin sareak garatu ere.



Benitoren urtebetetzea, EAEko buruzagi indigena babestua.

KOOPERAZIOA

Pandemiak hain gogor jo du Latinoamerika osoan, gaur egun, oraindik, ez dakigula zenbaterainoko eragina izan duen. Pentsa dezagun soilik herri indigenak, 45 milioi pertsona baino gehiago, askotan, biztanleria-sektore-rik zaurgarriena dela, eta gobernuengandik ahaztuenak; bada, pandemiarekin, areagotu egin da hori, eta, ondorioz, asistentziarik ezak eta osasun-arretaren utzikeriak herri horietakoren bat desagertzea eragin dezake.

2020an gure bazkideei babesa ematen jarraitu dugu, herri indigenen eskubideen defentsan eta gauzatzean egiten duten lanean. Pandemiaren ondorioz modu mugatuagoan bada ere, jarraitu egin dugu prestakuntza politikorako eta lidergoak indartzeko prozesuak babesten, funtsezkoak baitira indigenen mugimendua indartzeko, haien eskaerak artikulatzeko eta haien eskubide indibidual eta kolektiboak defendatzeko. Lurraldeko eskubidearen defentsan lan egin da, interes ekonomiko estraktibisten aurrean; batez ere, Guatemalan eta Ko-

lonbian. Azkenik, Bolivian batez ere, komunikazio indigena landu da, eskubideak aldarrikatzeko, norberaren nortasuna eta kulturak errealizatzeko eta errealitatea ikuspegi indigenatik aztertzeke tresna gisa.

Azkenik, beste alde batetik, baina betiere Boliviako emakume eta nekazarien antolakunde sozialek —kasu honetan, indigenek—, protagonizatutako prozesuei laguntzeko ildoan, lan handia egin zen urriko hauteskundeetarako. Latinoamerikan lehen aldiz, Nazioarteko Behaketa Misio bat antolatu ahal izan zen, hainbat herrialdeetako buruzagi indigenek osatu zutena eta hauteskunde prozesuan parte hartu zuena.

ORGANIZACIÓN INDÍGENA DE ANTIOQUIA (KOLONBIA)

Aurten, batez ere, Uraba Iparraldean eta Behe Kaukan senu herria indartzea izan da lanaren ardatza, Casa del Saber Marió Domicó etxearen bidez, gobernu propioaren, giza eskubideen, galdagarritasunaren eta eragin politikoaren ildoetan, baita ekonomia propioan ere. OIAko Kontseilaritza Nagusiak bere epealdia amaitu du, eta espero dugu 2021eko martxoko kongresuan Antioquiako mugimendu indigenarekin konprometitutako beste Kontseilaritza bat osatzea, datorren epealdi honetan komunitateen aginduak beteko dituen.



Guardia indigenaren lurraldeetako sarrera- eta irteera-kontrola covid 19 sahiesteko.

EL CONSEJO REGIONAL INDÍGENA DEL CAUCA (KOLONBIA)

Emakume indigenen giza eskubideen eskola ibiltariak bideari jarritu diote Caldon, Kizgo, Las Delicias eta Peñonen; horrela, 2016an hasitako etapa amaitu dute, CRICeko 9 eremutako 10 babesleku indigenetara iritsiz, eta indarkeriaren biktimak diren emakume indigenentzako arreta eta prebentzioa barne hartzen duten ekin-tza-planen bidez. 2021ean Programa Mujer delakoak

eskola zonak eta indarkeriaren behatoki bat jarriko ditu martxan. Eta Giza Eskubideen Programarekin batera, guardia indigena indartzea bultzatuko dugu, arreta berezia eskainiz guardiako emakumeei.



CRICeko Emakume Indigenen Ibilbide Eskola.

CENTRO DE FORMACIÓN Y REALIZACIÓN CINEMATOGRAFICA (BOLIVIA)

Gobernu kolpistaren errepresioa eta pandemiaren murritzaketak gorabehera, CEFRECEk gai garrantzitsu batzuk landu ahal izan ditu antolakunde indigenekin, hala nola ekonomia komunitarioa edo emakumeek indarkeriarik gabe bizitzeko duten eskubidea, eta horiei buruzko komunikazio-materialak prestatu dira. Antolakunde indigenek gai horiei buruzko proposamen adostuak garatu dituzte; horien bidez, asmoa eragitea da, lege, araudi eta politika publiko bihurtzeko. Gainera, arrazakeria eta errepresio handiko giroa bizi izan den urte honetan, funtsezko lana egin dute komunikatzaile indigenek, klandestinitatetik herrialdean gertatzen ari zenaren inguruan informatuz eta egoeraren salaketa eginez.



Cochabambako elikadura-burujabetzaren azoka, CEFRECEk antolatua.

UKUXBE (GUATEMALA)

Iragan urte honetan areagotu egin da eliteek eta erauzketa-industriek Guatemalako giza eskubideen defendatzaileen aurka gauzatzen duten kriminalizazio- eta judizializazio-estrategiak. Estrategia horren helburua honakoa da: lurraldearen defentsaren alde borrokan eta erresistentzian ari diren sare eta antolakunde komunitarioak ahultzea, antolakuntza-mailan zein maila-politikoan. Hori dela eta, Uk'uxB'e-k jarraitu egin du mayab' herriaren defentsarako antolakundearen arteko artikulazio lokaleko eta globaleko prozesuak sustatzen. Hori lortzeko, lehentasunezkoztat jo da, alde batetik, emakume maiek komunikazioan dituzten gaitasun tekniko eta politikoak indartzea, irra-



Guatemalan nazio anitzeko estatu baten aldeko mobilizazioa.

ti komunitarioen eta sare sozialen bidez aukera izan dezaten erauzketa-enpresen aldetik estatuko erakunde publikoen tolerantziarekin, pairatzen dituzten erasoak salatzeko; eta, beste aldetik, Consejo de Pueblos K'iche's kontseilua -CPK-, Prensa Comunitaria, Alcaldía Indígena de Santa Cruz del Quiché eta Uk'uxB'e beraren antolakuntza indartzea. Azkenik, laguntza psikosoziala eta juridikoa eskaintzen jarraitu da, familia kriminalizatuei eta lurraldearen defentsan egindako lanagatik preso dauden pertsonen zuzendua. Babes horren baitan, COVID-19aren inpaktuaren ondorioz, premia biziko elikagaiak banatu dira, Quiché departamenduko komunitate indigenen pobrezia egoera nola-bait arintzeko.

ASECSA (GUATEMALA)

